

EKONOMIA

Kontuak egiteko 57 era



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Zenbakien garaian gaude. Aurrekontuak lanean, etxean eta titullarretan. Gobernuetatik errepikatu zaizkigu urteroko leloak eta esaldi potoloak: “Inoizko aurrekontu sozialenak”, “zerbitzu publikoen aldeko apustua”, “hezkuntzan inbertitzen duen gobernu”... Hitz hutsak, kea; pixka bat arakatuz gero, nabarmena baita aurrekontuon helburua, funtsean, sistema (kapitalista) bere horretan mantentzea dela.

Baina bada beste modu bat kontuak egiteko. Bada beste modu bat kapitala helburu ez izateko. Eta, administrazio publikoak halakorik bermatzen ez duen bitartean, norbanakoon, komunitatearen eta sareen ardura kolektiboa da oinarriko beharrak estaliko dituen funtsak eta tresnak sortzea. Eta, hau diot, Koop57ren 10. urteurrena ospatu berritan. Hau diot, Gasteizko topaketan bizitako familia giroa gorputzean. Hau diot, proiektu sozioekonomikoen bihotza ikusten duen Koop57ko bazkide izateaz harro.

Koop57 kooperatiba finantzarioak lagundu zion Goienerri, kooperatibak bizi izan duen estualdi finantzario handienetakoa. Koop57k lagundu zion Biziolari, Goierri eraldatzeko ametsari hanka finantzarioa eskainita. Koop57k lagundu zion Zituene, Abaila, Eskutik, Hiruki Larroxa, Katakarak, Kaxilda, Tapuntu, Aiaraldea... eta beste hamaika elkarte eta kooperatibari.

Ez dago esker hitz nahikorik Koop57k urteotan egindako lana eskertzeko, izenabizenekin. Liher, Jone, Pau, Maider, Unai, Nora, Gorka, Amaia, Beñat, Marta, Txutxo, Andoni, Iker, Urtzi... eta Koop57ko lurralde sailetan dauden milaka bazkideei: mila milioi esker.

Eta hamar urte barru, zer? Hamar urte barru bazkideak eta funtsak biderkatuta izango ditugu. Gero eta gehiagok sinetsiko dugu diruak bihotza ere izan dezakeela, eta kontu korrante ilunetan baino, hobe da goela Koop57ko funtsetan. Koop57n inbertitzea, bizitzan inbertitzea delako. ●

ANALISIA



Junts eta Rosalia

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Jainkosa baten moduan dabil Rosalia. Zoro ipini du jendea. Jainkosak behar baititu gizarteak, zerbaitetan sinesteko. Inork antza deus egiteko ez zeukan asetzken arratsalde batean, zuzeneko bideo-konexio bat zabaldu zuen sareetan, bera mojaz jantzita, atzerritik ekarritako auto bitxi bat gidatzen, zigarroa erretzen, Madrilén zehar. “Trafikoa gorabehera, ordu erdi barru Callaon [Madril erdi-erdian] egongo naiz eta disko berria iragarriko dizuet”. Ordu erdi. Nahikoa izan zen kolapsoa eragiteko eta komunikabide guztiak horretara jartzeko.

Diskoa handik bi asteetara argitaratu du. Filtrazioa gertatu da estreinaldia baino bi egun lehenago, baina horrek ez du ikusmina indartu besterik egin. Pentsa, komunikabideetako disko kritikariak ere aurreratu egin dira. Horrek ekarri duena da, Rosaliaren inguruko artikuluek pastela jan diotela aktualitatean egon nahi zuenari. Alegia, gaur egun EAJk ere aldamenean nahi ez duen Junts-i, Rosaliaren naziokideari.

Juntsek itxuraz “definitiboki” erabaki du Espainiako Gobernua parlamentuan blokatzea. Ez daude eroso, ez dira eroso egon legegintzaldi hasieratik, ez baitie batere onik egiten Espainiako Estatuan satorrarena egiten aritzeak, eta, aldi berean, Katalunian aginte esanguratsurik ez edukitzeak. Jokaleku zaila da: etxean irabazi nahi, baina kanpoan jokatu behar, beste aukerarik ez baitauka. Espazioa jaten ari zaio Aliança Catalana alderdi ustez independentista, xenofobo eta arrazista. Procèsaren atsekabetik sortu zen alderdi horrek Vox-en diskurtso berberak ditu migrazio gaietan. Junts eztabaida horietara ari da batzen, ari zaio eskuin muturrari diskurtsoa erosten, eta ari da, presio berberaren eraginez, Espainiako Gobernua atakan ipintzen. Baina atrebentzia falta zaio. Zentsura mozioa aurkezteko eskatzen dio eskuinak eta eskuin muturrak, baina egingo balu, hilotz bihurtuko luke bere burua. Erdibidean geratu da, koldar.

Zalaparta sortu eta protagonismoa irabazita irauli nahi du egoera Juntsek. Horretarako, estrategikoki planteatuta zeukan iragan astea; Espainiako gobernagarritasuna auzitan ipiniko zuen, eta komunikabide guzti-guztietan irtengo zen. Baina Rosaliak jan dio pastela, eta ez da bexamelik egon denentzat.

Ulgarriki, akuilaturik sentitu dira. Baina norbere egonezinak irensten eta ku-deatzen jakin behar dela esango luke edonork. Ez da kasua izan. Ez dira isilik geratu Juntsekoak, eta Rosaliaren aurka hitz egin dute, galtzaile txarren tankeran. Disko berriko azken kantuan Montserrateko monasterioko [Bartzelonako probintzia] koruak kolaboratu du, gaztelaniaz abesten. Juntsi ez zaio detailea gustatu, eta hizkuntza zapaltzeko enegarren saiakera dela salatu du. Tira, izango da. Baina gainontzeko alderdi independentistak badaezpada isilik geratu dira. Hainbesteko fedea mugitzen duen jainkosa bati aurre egiteko bi aldiz zanpatu behar da lurra, irentsiko ez zaituela konprobatzeko. ●